

Irizpideak eta Jardunbide egokiak

NORTZUK GAREN

Naturan ibiltzea maite duen talde gara. “Deusto” Seniden Elkarteko aisialdi-arlokoak gara, zeinen azken helburua den Deustu inguruko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Aisialdi-arloa beste talde batzuekin partekatzen dugu, jarduera hauek dituztenekin hain zuzen: mendizaletasuna, ibilbideak, museoen bisitak eta interés artistiko edo kulturalako txangoak.

Elkartean beste arlo bi daude, helburu hauek dituztenak:

- **Hirigintza:** inguru geografikoarekin eta giza ingurunearekin zerikusia duten gai guztiak kudeatzea, hala zelan kaleak, espaloiak konpontzea, semaforoak, zaintza, garraioa, zirkulazioa, edukiontziak, auzo-arazoak, etab.
- **Kultura:** era guztietako ekitaldiak antolatzea auzotarren kultura-maila hobetzeko, hala zelan gai interesgarriak buruzko hitzaldiak, kontzertuak, topaketa soziokulturalak, etab.

Helburu orokorra (“Ikuspegia”)

Talde Bide Zalearen azken helburua taldekideen osasun fisikoa eta mentala naturaz gozatuz hobetzen da, naturarekin eta ibilbideetako kideekin harmonian gaudela.

Gure irteerek badute osagai kultural bat ere, Bizkaiko historiari, arteari eta jendeari buruzko gure ezagutzak nabarmen zabaltzeko aukera ematen diguna, landa-auzoak bisitatzen ditugulako, batzuetan komunikazio-bideetatik eta hiriguneetatik urrun, baita edertasun ikusgarriko leku eta paisaia naturalak ere.

Beraz, kirola, natura, adiskidetasuna eta kultura uztartzen ditugu.

Helburu jakina (“Misioa”)

Gure “berehalako” ekintza Bizkaiko lurralde osoan zehar astero mendiko ibilaldiak egitea da, bai eta hilean behin lurralde mugakideetako interes-guneetan zehar ere. Irteera ofizialak edo “arautuak” astelehen eta asteazken goizetan egiten dira, taldeka banatuta, 35 pertsona baino gehiago ez izateko. Beraz, autobús publikoetan bidaiatzeko arazoak edukiko genituzke. Beste talde batzuek irteera informalak, gogoaren arabekoak, askeak, egin dituzte, asteko beste egun batzuetan.

Kultura-osagaia izan daitekeen arren, mendiko ibilaldiak lehentasuna du; beraz, baldin museo bat edo artisau -nahiz kultura- jardueraren bat ikusteak ibilaldian aurrera segitzea eragozten badu, erabakiko da ibilbidea aurreikusi bezala burutzea, guztiok ados egon ezik.

“Ibilbideen irizpidea” atalean irteera ofizialen arauak eta irizpideak garatuko ditugu.

Printzipioak eta balioak

Adiskidetasuna. Ez gara mendira joateko ados jartzen diren persona bakartuak, ezpada talde edo lagunaren sarea, partekatzen dutenak goian adierazitako helbururak, ezagutzak eta trebetasunak behar bezala betetzeko borondate ona eta prestasuna, denek parte har dezaten eta inor bazterturik egon ez dadin. Taldeko bati jazotzen zaiona guztioi jazotzen zaigu. Pertsona bakartuak ez dira arduratzen atzean geratu diren pertsonen. Guztiok adi egon behar dugu.

Natura maitatzea. Ezin dira ibilaldiak ulertu “murgiltzen” garen ingurune naturalarekin sintonia handian egon barik. Lehenengo urratsa natura ezagutzea da, bera ezagutuz bakarrik lortuko dugulako natura babestea eta maitatzea.

IBILTARIAREN JARDUNBIDE EGOKIAK

- ✓ Ez lehiatzea. Naturako irteeretan helburua ez da heltzen lehenengoa izatea, ez arinago joatea, ezta, salbuespenak salbuespen, aurreikusitako ordutegia betetzea ere, ezpada elkarrekin eta harmonian heltzea, ibilbideaz gozatu ostean.
- ✓ Sekula ere bakarrik ez uztea une txar batean dabilen edo istripuren bat izandako laguna, eta behar izanez gero, laguntasuna emateko prest egotea.
- ✓ Gure ibilera makalenen arabera egokitzea, gutxienez harik eta irteeraren arduradunak modua eduki arte bazterturik gera ez daitezen.
- ✓ Interes partikularrengatik talde orokorraren ibilera ez moteltzea, hala zelan adostu barik paisaiaz gozatu gura izateagatik, basa-fruituak jasotzeagatik, etab.
- ✓ Talde orokorrak istripuren bateagatik bakarrik egon beharko du zain, edo ibiltariren bat une horretan sasoiaren ez egoteagatik edo adostasun orokorraren ondorioz.
- ✓ Irteerako beste pertsona batzuekin sesioan ez ibiltzea edo probokazioei ez erantzutea, eta giroa, baretzen saiatzea, horrelakorik beste batzuek eragin badute.
- ✓ Talde baztergarriak eta jarraituak ez egitea, eta, ostera, guztien arteko komunikazioa sustatzea.
- ✓ Polsak, paperak edo material organikoa ez dena lurrera ez botatzea, eta ahal dugun neurrian daudenak jasotzea.
- ✓ Inoren zuhaitzetatik fruiturik ez hartzea. Hala ere, basa-fruituak hartu ahal izango ditugu, baldin eta horretarako inorenean sartu behar ez bagara.
- ✓ Saiatzea bide edo bidezidorretatik ez irteten, eta ireki behar izan ditugun hesiak ixtea.
- ✓ Beti gidariaren jarraibideei adi egotea, eta saiatu, gainera, ez galtzen bistatik, ez aurretik, ez atzetik.

TALDE BIDE ZALEKO PARTAIDE EGITEA

Hona hemen gure taldean hasteko arauak:

1. Talde Bide Zalean “Deusto” Seniden Elkartearen bidez sartzen da, Maite Turrillas horren ardunadunarekin Kontaktaturik (emaila: maciturri@gmail.com. Tfno 656 71 94 07), edo honen bidez: asociacionfamiliasdeusto@gmail.com.
2. Ibiltarien kopurua mugatuko dute nahiz talde kopuruak, nahiz ibilaldiak modu seguruan antolatzeke dugun gaitasunak.
3. Hautagai berri bakoitzari talde jakina atxikiko zaio, eta, ahal den guztietan, lagunak edo ezagunak dituen taldea izango da.
4. Taldeak osatuta daudenean, itxaron-zerrenda sortuko da, eta orduan noiz sar daitezkeen jakinaraziko zaie hautagaiei. Bitartean ezin izango dute parte hartu irteeretan.
5. Eskaera egiten duten unea baino lehen elkartuta daudenek lehentasuna izango dute.

IBILBIDEEN IRIZPIDEAK

Garraioa

Normalean garraio publikoan edo oinez Deustutik, eta hilean behin, gutxi gorabehera, interes bereziko lekuetara, autobusa kontrataturik.

Ordutegia

Irteera 8etatik 9ak artean; itzulera 13etatik 14ak artean. 9etatik 13ak arteko ibilbidea 14 km ingurukoa izango litzateke, eta barruan ordu erdi legoke geldialdi txikietarako eta bokata jateko.

Ibilbidea eta metaturiko desnibelak.

Gaur egun, hiru aukeratan banatzen gara, egitarau banarekin:

1. 10 eta 15 km artean, desnibela, normalean 300 m-koa. Irizpidea da 500 m-tik gorakoa ez izatea.
2. 8 eta 12 km artean, 250 m-ko desnibela gehienez, eta aldatsak gehienez % 10ekoak.
3. 8-12 km artean, 100 m-ko desnibela gehienez, eta aldatsak gehienez % 5ekoak.

Behegaina

Oinarrizko araua errepideak ekiditea da, bidegurutzeak edo tarte laburrak izan ezik. Egokiena landabideak edo bidexkak dira, asfaltatu bakoak, baina azken irizpide hori behegainak daukan egoeraren arabera da. Ahaleginak egingo dira hurrean beste aukerarik ez duten basatzak ekiditeko, bai eta harri solteak dituzten desnibelak ekiditeko ere. Horregatik, euri-garaietan

komenigarria izango da irteerak pista asfaltatuetatik egiteko programatzea, lurrezko bidezidor edo pistetatik baino gehiago.

Errepikapenak

Ahal badugu, ez dugu aurreko urte bietako irteerarik errepikatuko, edertasun edo interes bereziagatik gomendagarriak direnak izan ezik, edo edozein arrazoiengatik baldintza egokietan egin ez zirenak izan ezik, adibidez: erauntsian edo euritza, egun gris batean edo hainbat arrazoiengatik parte-hartzaile gutxi izandako irteerak.

Errepikakorrak

Ahal dela, ez gara abiatuko aurreko batean irtendako inguru beretik, adibidez, ez da jarraian birritan irtengo zona beretik.

Segurtasuna

Lehentasunezko irizpidea da. Segurtasun Sailak igorritako abisu, alerta edo/eta edozein meteorologia-alarma egoeren aurrean, tenperatura altuak, elurteak, eurite gogorrak, haizeak eta abar direla eta, irteera bertan behera geldituko da.

Ez da tarte arriskutsuetatik igarotzea eskatzen duen irteerarik egingo. Une jakin batean taldeko edozein pertsonarentzat arriskutsutzat jo daitezkeen egoeretan bagaude, irteera bertan behera utzi edo martxa aldatu beharko litzateke, ahal den neurrian

Aurrera jarraitu nahi dutenek, **beren ardurapean egingo dute.**

Autoritatea.

Azken autoritatea Talde Bide Zaleak Elkartean duen ordezkariarena da, baina irteerei dagokienetan eta ibilaldietan kasuan kasuko gidak markatu beharko ditu ibileraren norabidea eta erritmoa, eta berak beharrezkotzat jotzen dituen geldialdiak egin berriro denok elkartzeko edo atseden hartzeko.

Gidak berak lehenengoa izan beharko luke beti, eta, beraz, gomendatzen da inork ez aurreratzea. Hala eta guztiz ere, arinago joan gura dutenek, norabide desberdinetara jo gura dutenek edo geldialdietan zain egon gura ez dutenek, hori guztia euren ardurapean egingo dute. Gidariak zaindu behar du inor alboraturik gera ez dadin.

Pertsona batzuk "hotz" geratzen dira atzeraturen baten zain egon behar badute. Kasu horretan, gomendatzen zaie bihurtu eta atzeratuen taldeari laguntasuna ematea, horrela ez dira inoiz geldirik egongo eta.

Gainerakoan, atzeko tropelean ibilbidearen gaineko esperientzia eta ezagutza duen norbait joango da, inor bakarrik gera ez dadin. Ona litzateke mundu guztiak arduradun bien telefonoak edukitzea.

Talde txikietan banatuz gero, garrantzitsua da talde bakoitzak aurreko eta atzeko taldea bistatik ez galtzea, eta hori jazoko balitz, taldeak abisatu behar luke, nahiz bere aurretik doana zain geratzeko,

nahiz bere atzetik datorrenarekin batzeko. Ezelan ere ez da pertsona bat bakarrik geratu behar, laguntasun barik. Inork geldialdiren bat egin behar badu, abisatu egin behar du besteak zain egoteko.

Ibilbide alternatiboak

Ondo egongo litzateke ibilbide alternatibo batzuk prestatuak izatea, garraioan arazoak daudelako irteera programatua egin ezin den kasuetarako.

KOMUNIKAZIOAK Posta elektronikoa / WhatsApp

Elkartearen ustez garrantzitsuak diren komunikazio batzuk posta arruntez egin balitez ere, asteroko komunikazioak posta elektronikoz edo WhatsAppez egingo dira, hala zelan egitarau eta erreportajeenak, bai eta azken orduko informazioak ere. Posta elektronikorik edo taldearen ohiko komunikabiderik ez daukaten pertsonak **beste ibiltariren batekin izan beharko dute kontaktua, haren bidez azken orduko aldaketen berri jasotzeko.**

Egitarau orokorra

Denboraldi bietako edozeini ekin aurretik (iraila-abendua eta urtarrila-ekaina), hurrengo denboraldiaren irteeren egitarau orokorra bidaliko zaie guztiei. Egitarau orokorreko irteeretatik batzuk alda daitezke, eguraldia, garraio-grebak eta abar direla kausa. Beraz, adi egon behar dugu aurreko asteko egitarau espezifiko eta zehatzari begira.

Asteko egitaraua

Irteeraren aurreko astean bidaliko den egitarauan ordutegiak ez ezik, ibilbidearen informazio zehatza eta izan daitezkeen zailtasunen gainekoa emango dira.

Erreportajeak

Irteera bakoitzean, Elkartearen memoriarako datuak batu eta hobetu ahal izateko, gidek informazioa emango dute bertaratuen kopuruari, gorabeherei, ibilbideko datu errealei eta une edo leku garrantzitsuenen argazkiei buruz

IRTEERAK AUTOBUSA KONTRATATURIK

Hilean behin, egitarauarekin bat, egun osoko irteera bat egiten da autobusa kontrataturik, lurralde edo probintzia mugakide batera, eta autobusez gehienez ordu biko joan-etorria izaten da.

Irteera horretan Deustutik abiatzen gara, 7:30etik 8:00ak bitartean, adierazitako tokitik. Itzulera 17:00ak aldera izaten da bazkaldu dugun lekutik, eta helmuga Deustun izaten da, adierazitako tokian.

Hona hemen autobuserako arauak, plazak mugatuak dira eta:

1. Bide-**zaletasuneko** taldeen zerrendetako pertsonak bakarrik etor daitezke.
2. Lehentasuna dute jardueraren garapenean koordinatzen duten eta erantzukizunen bat duten pertsonak.
3. Ibilbide aukera bi eskainiko dira, laburra eta luzea.
4. Irteera baino **aste bi lehenago** (astelehen edo eguaztenean), etorri gura duten pertsonak WhatsApp jakinaraziko diote **bere taldeko** arduradunari. Era berean, egon daitezkeen bajak WhatsApp jakinaraziko dira, **denbora nahikoaz** itxaron-zerrendan dagokion pertsonari jakinarazteko.
5. Interesdunak libre dauden tokiak baino gehiago badira, **irten aurreko astelehenean zozketa egingo da itxaron-zerrenda osatzeko**. Horrela zehazturiko hurrenkeran ordeztuko dira jazo daitezkeen bajak.
6. Zozketan kanpoan geratzen diren pertsonak **lehentasuna izango dute hurrengo hilabeteko autobus-irteeran**, non eta irteera baino lehen eurek hartzeko moduko plazak hutsik geratzen ez diren.

Hasiera batean zozketan bazterturiko pertsona horietarikoren batek irteerara auto partikularrez etortzea erabakitzen badu ere, lehentasunari eutsiko dio hurrengo hilabeteko autobus-irteeran. Zozketan plaza lortu arren, azkenean auto partikularrez etortzea erabakitzen dutenei ere emango zaie lehentasun hori, baldin eurek utzitako plazak itxaron-zerrendako pertsonak hartzen badituzte.

7. Itxarote-zerrendan egonda, irteera baino lehen sorturiko plaza libreari **uko egiten dioten pertsonak lehentasuna galduko dute**.
8. Ordainketa (Autobusa+Jatetxea) irten aurreko astelehenean egingo zaio (zozketaren ondoren, halakorik balego) bere taldeko arduradunari (batez ere **Bizum** bidez). Astelehenetik aurrera baja hartzen duen edo irteerara joaten ez den pertsonak eta haren plaza betetzen ez bada, **autobusa ordaindu beharko du**. Jatetxeari dagokion zenbatekoa baino ez zaio itzuliko.
9. Akatsak zuzendu ahal izateko, irteeraren aurreko egunean behin betiko zerrenda bidaliko da, egiaztatu eta bidezko erreklamazioak egiteko aukera egon dadin. Erreklamazioren bat egonez gero, zuzenean erantzungo zaio egileari.

DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, elkartek jakinarazten du, eta bazkideak onartu, elkartekideak emandako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horren helburua elkarte eta bere jarduerak behar bezala kudeatzea da, eta elkartek aitortzen du bazkideak datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko edo ezerezteko duen doako eskubidea.

Jakinarazten dizugu zure datuak jardueren zerrendak egiteko erabili ahal izango direla, bakarrik eurak hobetearren.

Zerrendak elkarte barruan bakarrik erabiliko dira, eta elkartek ezin izango die helarazi kanpoko beste erakunde edo pertsonari.